

USURBIL / Udal liburutegiak itxita jarraituko du kokaleku berria egokitu bitartean

Abuztuko oporren ondoren orain irekitzekoak ziren, baina irailaren erdi aldera irekitzeko asmoa dute

JOSU ARANBERRI/

USURBIL. DV. Udal liburutegia abuztuaren 29a arte itxita egongo zela iragarrita zegoen, baina azkenean epe hau luzatu egingo da. Urtero bezala abuztuan oporrenegatik itxita egon da aste honetan bertan irekitzekoa zen udal liburutegia. Bitarte horretan udaletxetik Sutegi kultur etxe berrirako trasladoa egin nahi zuten ahalik eta azkarren egoitza berria irekitzeko, baina azkenean, arazo batzuk tarteko, irailaren erdi aldera irekitzeko asmoa dutela esan digu Ibon Beristain kultura zinegotziak.



Udaletxeko liburutegiko apalak hutsik daude orain. [JOSU ARANBERRI]

Izan ere, orain arte udal liburutegia izan dena hutsik dago. Abuztuan itxita egoten denez, bertan zeuden liburuak Sutegiko egoitza berrira eraman eta bertako apaletan kokatzeko erabili dituzte opor egon hauek eta oraindik ere lanean dihardute udal langileek. Hasiera batean abuztuaren amaierarako dena prest izatea espero zuten, baina azkenean ez da hala izan. Sutegi kultur etxe berria ordenadoreak, hauen zerbitzariak eta beste hainbat gauza jartzea falta da eta horiek guztiak prest izan bitartean ezingo dute ireki. Hala ere, irailean bertan udal liburutegi berria erabiltzeko moduan izatea espero dute udal agintariek.

Bertan, eraikinaren lehenengo eta bigarren solairuetan izango du kokaleku berria udal liburutegiak. Hasieran liburutegia Txaramuntun egitekoak ziren, baina arazoak tarteko liburutegia kultur etxean kokatu dute azkenean. Ez du oraingo liburutegiaren inolako antzik izango, izan ere, bebeteka deituko dena izango dute 0-5 urte bitartekoek, eta 5-14 urtekoek ere beren eremua izango dute. Hemeroteka bat egongo da, baita kontsultak egiteko zerbitzua ere, fonoteka, bideoteka... Bien bitartean, eta Sutegi eraikuntza eraberrituan zerbitzu hauek martxan jarri bitartean, uztailaren 29a baino lehen liburuak alokairuan hartu zituzten herritarrek udaletxeko errejistroan utzi ditzazkete liburuak.